



## Bi txupinazo desberdinekin hasi dira Anoetako jaiak

**KUKUA** ▶ Kukua jaitsi ondoren, haur danborrada eta sardin-jatea izan zen egitarau ofizialean

**BILKURA** ▶ Txupinazoan pregoia irakurri eta kontzentrazioa egin zuten plazan jai alternatiboetan ▶ 4

### TOLOSA ▶

## Bertso ikasleen jaialdia gaur eta bihar


Hiru ikastetxeetako 450 neska-mutilek prestatu dute ▶ 2

### TOLOSA ▶

## Pako Eguna, ekainaren 11n izango da, 5. aldiz

Haurrei eta gazteei zuzenduriko ekitaldiak dira ▶ 3

### LEITZA ▶



Ikasleak jotzen iaz. J.ASTIBIA

## Bihar, bost herritako ikasleen kontzertua

Proiektuan 519 ikasle ari dira parte hartzen ▶ 7



## Iglesias anaien pintura eta eskultura erakusketa

**IBARRA** ▶ Puerto Iglesiasen pinturak eta bere anaia Manuel Iglesiasen eskulturak ikus daitezke egun hauetan Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. Caceresen (Espainia) jaiok, lehena Holanda bizi da eta bigarrena Beasainen. Arte Ederrak ikasi zituen Puerto Iglesiasen Belgikan, marrazki eta pinturan espezia-

lizatuz. European zehar erakusketa ugari ditu eginak. Manuel Iglesiasen 1991ean egin zuen lehen erakusketa. Geroztik 16 egin ditu bakarka eta 9 taldeka, Euskal Herrian eta atzerrian. Neurri handiko eskulturak ditu jarrita Beasainen eta Berriozarren. Donibane Lohitzunen saritu dute. INIGO TERRADILLOS ▶ 6

## KIROLA ▶



## Samaniegoko neskek, Gipuzkoako txapeldunak alebinetan

**Erredakzioa** ▶ Joan zen larunbatean Samaniego ikastetxeko alebin mailako neska taldea Gipuzkoako Eskolarteko txapelduna gelditu zen Altzako kiroldegian Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastetxearen aurka 4-1 irabazi ondoren. Aurreko kanporaketan Elgoibarreko El

Pilarri 9-1 eta 7-0 irabazi zuten eta finalerdian Segurako Laiotzi 5-2. Samaniegokoek denboraldi bikaina burutu dute, joko ona erakutsiz, partidurik galdu gabe. Argazkian, Nerea, Olaia, Ane, Maialen, Oihana, Mireia, Irune eta Ane, Jon Arregi monitorearekin. HITZA

## HEZKUNTZA ▶

## 2. Batxilergoko ikasleen gurasoentzat saioa Orixen

## LEIRE MONTES

Gurasoentzat beste saio bat antolatu dute Orixen institutu-tuan. Hain zuzen ere, 2. Batxilergoko ikasleen gurasoentzat zuzendutako saioa prestatu dute oraingo honetan.

Xabier Tolosa zentzoko orientatzaileak beren seme-alabek 2. Batxilergoa bukatu ondoren dituzten irteerak eta aukerak, eman beharreko pausoak eta egin beharreko tramiteak azalduko dizkie, besteak beste, bildutako gurasoentzat.

Arratsaldeko zazpitan hasiko da solasaldia, institutu-tiko liburategian. Guraso guzti-ekin bileran parte hartzeko gonbita egin diete Orixeko arduradunek.

## KULTURA ▶

## Jaialdia eskainiko dute gaur eta bihar ikasleek Leidorren

Ikasturte osoan landutako 'Ahozkotasuna eta bertsolaritza' proiektuari amaiera emango diote gisa horretara Samaniegoko, Hirukideko eta Laskoraineko LHkoek

## IRATXE ETXEBESTE

Tolosaldeko hiru ikastetxeetan Ahozkotasuna eta Bertsolaritza proiektua abian jarri zenez, suspertzen ari da eskualdean bertsolaritzarekiko zaletasuna. Horixe ondoriozta daiteke Laskorain ikastolako eta Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako ikasleek euskarazko eskolatan egiten duten lana aintzat hartuz gero. Izan ere,

ahozkotasunaren eta bertsolaritzaren nondik norakoak ezagutzen, eta, era berean, jasotakoak praktikan jartzen ari dira astero-astero eskola orduetan.

Horretarako, hitzarmena sinatu zuen Tolosako Udalak urtarirlean Gipuzkoako Bertsotzale Elkartearekin, eta proiektuaren kostu osoaren %33a izan ezik —hori ikastetxeek ordaintzen dute, dituzten ikasle-aren arabera—, gainerakoa finantzatzen du, besteak beste, 10 eta 12 urte bitarteko 450 bat ikasleri bertsolaritzaren mundura hurbiltzen lagunduz.

Bixente Gorostidiren gidaritzapean ari dira ikasle horiek guztiak, 24 taldetan banatuta, lanean. Bertsolari amezketa-rrak dio proiektuaren helburua «bertsolaritza ezagutzera ematea eta bertsolaritzan lan-tzen diren baliabideak ahozkotasunarekin zerikusia duten esparru guztietara hedatzea» dela izan. Ikasleak, bada, bertsolaritzak eskaintzen dituen aberastasun linguistikoak eza-

gutzen bakarrik ez, erabiltzeko gaitasuna lortzeko ahaleginean ere badabilza. Eta horren il-dotik, «egoera komunikatiboaren arabera koherenteki jokatzeko jakitea; hizkuntzaren erregistro informal ludikoez jabetzea; hizkuntzak dituen baliabide estetikoak jabetzea, eta, halazatik, erabiltzea; memorizazioarako gaitasuna jorratzea; bertsolaritzaren bidez Euskal Herriko tradizioa eta oraina uz-tartzeko gai izatea eta bertso eskolen ingurua ezagutzea eta horietara hurbiltzea» dira, badez ere, proiektu horrekin sus-tatzaileek lortu nahiko litzuketen helburuak, batzuek batusk aipatzearen.

Gipuzkoako Bertsotzale El-karteko kide Bixente Gorostid-ik hamabostean behin azaldu dizkie ikasturte osoan Lehen Hezkuntzako ikasleei bertsolaritzaren eta ahozkotasunaren nondik norakoak, eta euskara irakaslearekin landu dituzte gaik 10, 11 eta 12 urteko gaz-tetxoek gainontzeko egunetan.

Bertsotzale Elkarteko ardua-dunek ere egitasmoaren ja-rraipena egin dute orain arte gertu-gertutik, eta ikasturtea bukatzen ari denez, proiektu-aren balorazioa egiteko garaia ere hurbiltzen ari zaie. Ikaste-txeetako arduradunekin eta egitasmoan lanean aritu den irakaslearekin batera aterako dituzte proiektuari buruzko ondorioak, gero, udaletxeko ordezkarietara aurkezteko.

## Jaialdia, gaur eta bihar

Gipuzkoako Bertsotzale Elkar-teak eta Tolosako Udalak sinatutako hitzarmenean zehazten den bezala, proiektu hori lan-tzen aritu diren ikasleek jai-al-dia eskainiko dute herrian ikasturtean zehar ikastekoak jendaurrean azaltzeko. Bada gaur eta bihar izango da Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetako 450 neska-mu-tilek prestatutako emanaldia, 18:30ean hasita. Leidor zinema aretoan. Sarrera doakoa da.

## LANKIDETZA ▶

Tolosako Laskorain ikastolako eta Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek «Ahozkotasuna eta Bertsolaritza egitasmoa behar bezala eta lankidetzaz burutzeko», hitzarmena sinatu zuen urtarirlean Udalak Gipuzkoako Bertsotzale Elkartearekin. Guztira, herriko hiru ikastetxeek sortzen duten kostua 18.150 eurokoa da: %33 ikastetxeek ordainduko dute; gainerakoa, Udalak.

## ZENBATEKOA, DIRUTAN

**Kostuak.** Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Planak 18.150 euroko kostua du guztira, eta ikasteke bakoitzari sortu dizkionak hauek dira:

- ▶ Laskorain: 4.750 euro.
- ▶ Hirukide: 7.400 euro.
- ▶ Samaniego: 6.000 euro.

**Ikastetxeak.** Ikasle-aren arabera, kostu osoaren %33 ordainduko du bakoitzak. Hiruren artean, 5.647 euro.

- ▶ Laskorain: 1.425 euro.
- ▶ Hirukide: 2.222 euro.
- ▶ Samaniego: 2.000 euro.

**Udalak.** Ikasteke bakoitzari kopuru zehatz bat ordainduko dio, dituen ikasle-aren arabera. Guztira, 12.503 euro.

- ▶ Laskorain: 3.325 euro.
- ▶ Hirukide: 5.178 euro.
- ▶ Samaniego: 4.000 euro.

**Lizardi**  
inmobiliaria

TOLOSA: 140m<sup>2</sup> duplexa berritua eta altzariek.  
TOLOSA: 70m<sup>2</sup> pisua berrituko gazteentzat.  
TOLOSA: Geltoki aldea. Eraikuntza berria. Informazio pertsonala.  
IBARRA: 70m<sup>2</sup> pisua berritua eta argitsua.  
ORDIZIA: Etxe atxikia, txokoa, garajea 2 kotxerentzat, 4 logela, terraza eta jardina.  
BELAUNTZA: 100 m<sup>2</sup> PABILIOIA errepide ondoan. 51.090 €

Samaniego, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943651122 • Tel.: 679842785

GAZTERIA ▶



Aisialdi taldeetako begiraleak Pako Eguna aurkezten. N. LATABURU

# Bosgarrenez egingo dute Pako Eguna

Ekainaren 11n izango da, haurrei eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiekin

IRATXE ETXEBESTE

Bosgarrenez egingo dute aurtengoan Tolosako Udaleko Gazteria saileko eta Gazte Topaguneko arduradunek, elkarlanean, Jurasiko Parkearen inguruan urtero antolatzen duten Pako Eguna, eta ekainaren 11ko larunbaterako, goizetik iluntzera prestatu dituzten ekimenen berri emateko agerraldia egin zuten joan den astean antolatzaileek Kultur Etxean.

Asteburuero Topagunean bat egiten duten 13 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei ez ezik, orain arte bertara sekula agertu ez diren gazteei eta haurrei ere luzatu diete ekimenaren sustatzaileek larunbat horretan antolatutako ekintzetan parte hartzeko deia. Ekitaldien helburua, urtero bezala, «herriko gaztetxoek herrian bertan ondo pasatzeko aukera izatea» delako izan.

Hala, askotariko ekintzak jarri dizkiete Udaleko ordezkariak eta Topaguneko hezitzaileek gaztetxoei aukeran V.Pako Eguna behar bezala ospatzeko. Bi taldetan banatu dituzte parte-hartzaileak adinaren arabera, eta talde bakoitzekoentzat ekintza ezberdinak antolatu dituzte. Goizez, «saskibaloia 3x3 eta aerobitona izango dituzte helduenek, eta txikiak, berriz, aurpegiak margotzea, plastilinarekin eta lokatzarekin

eskulanak egitea eta aukiarren jolasa», esan dute Topagunekoek. Eguerdian bazkaria izango dute helduenek Pakon, eta, era berean, herriari itzulia emango diote patinekin. Antolatzaileek adierazi dutenez, ia zokoz ibilbide bera egingo dute. Hortaz, errepidea moztuko dute udaltzainek denbora tarte batez ibilgailuentzat.

Txikiak ere egingo dute itzulia patinen gainean, baina haiek herriaren barrualdean ariko dira. Plaza Berritik irten, eta Arostegieta, Korreo eta Agintari kaleak zeharkatu ostean Pakon bukatuko dute.

Arratsaldean, berriz, karaokea izango dute helduenek lehenik eta behin, eta jarraian jokatuko duten ping-pong txapelketarekin emango diote egunari amaiera. Txikiakentzat haur jolasak antolatu dituzte, bestealde: globoak haustea, zaku karrera, koxkol apustua... Eta helduenek ping-pong txapelketan parte hartzeko aukera izango dute bezala, «txikiak merendola txiki batez gozatzeko aukera izango dute aurtengo Pako Egunari bukatu ondoren. Tola, koxkol apustua...» adierazi dute Udaleko ordezkariak. Ekintza guztiak antolatzeaz eta prestatzeaz arduratu diren Topaguneko hezitzaileak izango dira, ekainaren 11n ere, haurrei eta gaztetxoekin batera jolasean ariko direnak.

XAKEA ▶

## Eskualdekoak, Kutxa Txapelketako finalera

Tolosako Xake Elkarteak egoitza berria du, Berdura plazan; inaugurazioa, ekainaren 4an

L. MONTES

Kutxa Txapelketako eskualdeko lehen fasea amaitu zen igandean. Bertan, X. Correderra, A. Alkorta, A. Intxaurren, J. Clarke, O. Etxenike, J. Ezeiza, I. Berakoetxea eta A. Villena alebinek osatutako taldeak ordezkatu zuten Tolosaldea. Tolosa-Ibarrako xake taldekoek ezaldutenez, «ez zuten txanda bat bera ere galdutako, eta multzoko txapelketan bukatu zuten». Hala, finalerako sailkatu dira zuzenean. Beste eskualdeetako txapelketak datorren igandean jokatuko dira; beraz, ordura arte itxa-

ron beharko dute finalean izango diren beste talde guztien zerrenda jakiteko.

Partida azkarreko lehia

Bestalde, Tolosako Xake Elkarteak egoitza berria duela jakinarazi nahi die zaletu eta herritar guztiei. Hemendik aurrera, Berdura Plaza, 2-behea helbidean izango dira.

Ekainaren 4an, larunbata, inauguratuko dute egoitza berria. Horretarako, partida azkarreko Tolosako Xake Txapelketa antolatu dute, 16:30ean. «Zaletu guztiak parte hartzea gonbidatu» dituzte.

SANJOANAK ▶

## San Joan areto futbol txapelketan izen-ematea

Ekainaren 14a arte eman daiteke izena, Shanti Kirolak-en; Arsenal-ek antolatu du



Jokalari gazteak, lehiari, Berazubini, artxiboko irudi batean. L. MONTES

L. MONTES

Ekainaren 17tik 26ra jokatuko da, Berazubini, XVII. San Joan areto futbol txapelketa. Antolatzaileek, Arsenal Kirol Elkarteak, zabaldu du dagoeneko izena emateko epea.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko gaztetxoek jokatuko ahal izango dute sanjoanetako areto futbol txapelketan. Hain zuzen ere, lau multzotan banatu dituzte futbolariak Arsenal-eko: 1993-94 urteetan jaiotako neskek, 1993-94an jaiotako mutilak, eta 1995-96 jaiotako mutilak.

Izen-ematea Shanti Kirolak denda egin behar da (943 65 34 24). Ekainaren 14a, asteartea, izango da azken eguna horretarako. Hurrengo egunean, ekainaren 15a, asteazkena, taldeen zozketa egin eta egutegia osatuko dute, Arsenal elkartearen bertan, 19:30ean hasita.

Ekainaren 17tik 23ra jokatuko dira partidak, Berazubini, arratsaldean. Finala, bestealde, ekainaren 26an, igandean, izango da.

MUSIKA ▶

## Ordurik aldatu dute Musikariako gaurko kontzertua

Eduardo Mokoroa udal musika eskolak antolatutako XI. Musikarian, gaur Errenteria Musikaleko Orkestrak eskainiko duen saioa ordu erdiz atzeratu da: 19:00etan jo dez, 19:30ean eskainiko dute saioa, Pablo Gorosabelen.

HITZALDIA ▶

## Bioaniztasunaren inguruan, Natur Jardunaldietan

Natura asaldututa jardunaldien baitan, Bioaniztasunari eusteko estrategiak EAEn izango dituzte gaur mintzagai, 20:00etan, udal etxean. Iñaki Aizpuru Gipuzkoako Foru Aldundiko Parke Naturaleko arloburua eta Mikel de Francisco IKT S.A.-ko inguru Naturaleko arduraduna mintzatuko dira. Miren Askasibar biologo eta paisajistik aurkeztuko du jardunaldia.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## ANOETA ▶

## Gazteen dantza saiorako entsegua, bihar

Larunbata gauean egingo den gazteen dantza saiorako entsegua deitu dute biharko antolatzaileek. 16:30ean izango da Gaztetxean eta antolatzaileek ahal den jende gehiena azaltzeko deia egingen dute. Guztira 50 bat lagunek eman dute izena ekitaldi honetarako.

## ANOETA ▶

## Toka txapelketa prestatzen ari dira jubilatua

Toka txapelketa izango da bihar, herriko festen baitan, 11:00etan plazan eta Alkartasuna jubilatuen elkartetik adierazi dutenez, prestatuta lanak egingo dituzte gaur arratsaldean. Bestalde, elkartetik esan dutenez, txapelketaren ondoren sorpresa izango da Biltokian. Horrez gain, igandeko meza, 12:30ean, orain gutxi zendu diren Alkartasunako kideen omenez egingo da: Josefa Zugasti, Timoteo Aranzabe eta Margari Alberdi.


**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Orain hamar urte ireki zen A-15 autobia. Izan du eraginik zure eguneroko bizian? Tolosaldearentzat eta Leitzaldearentzat onuragarria ala kaltegarria izan da?



A-15 autobia. M. SOROA

## iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Autokarabana.** Busner (Fiat Bucato) markako 6 plazako autokarabana. 23.000 km. Telefonoa: 675 717 913.

## ANOETA ▶ JAIK

# Txupinazoekin eman zaie hasiera herriko jaiak

Udalak plazan eta festa alternatiboetakoek txosnagunean bota zituzten suziriak

IMANOL GARCIA

Aurreko asteburuan ekitaldi ugari izan baziren ere, Anoetako herri jaiak hasiera ofiziala eman zitzaizkien atzo txupinazoekin jaurtiketekin, eguraldi ezin hobearekin. Udalak antolatutako egitarauaren baitan, txalapartarien saioaren ondoren kukuaren jaitsiera egin zuten, danborradarako prest zeuden haurrek danborrak astintzen zituzten bitartean. Ondoren, Fidel Azpiroz alkateak jaiak ondo pasatzeko esan eta gero txupinazoa bota zuten.

Suziria zeruan lehertu eta gero, haurren txanda izan zen. Orduan eman zitzaion hasiera danborradari eta txapel berde, txapel gorri eta txapel beltzek txarangaren doinuari eta zuzendariari jarraitu zieten.

Herri borondantearen aldeko festek ere bere txupinazoa izan zuten atzo arratsaldean. Txosnagunean egin zen, baina lehenengo txalapartarien saioa izan zen. Ondoren pregoia irakurri zen, «PNV-EARI herriaren borondatea errespetatzeko» eskatuz. Txupinazoa eta gero pankartak eskuan ziztuztela plazara inguratu ziren eta bertan kontzentrazioa egin zuten *PNV-EA bi urte anoetarren eskubideak urratzen. Aski da lelopean.*



Kukuaren jaitsierarekin bat haurrek danborrak astindu zituzten. I. G.



Festa alternatiboetako pregoia, txupinazoaren aurretik. I. GARCIA

## ZIZURKIL ▶ MAIATSA SALTAN

## Herrialde ezberdinetako umorezko hamar film labur ikusteko aukera izango da bihar Atxulondon

Animaziozko film laburrak dira guztiak; 19:30ean hasiko da emanaldi berezia

## ERREDAKZIOA

Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan umorezko film laburren emanaldia antolatu du Zizurkilgo Udalak bihar, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean. Guztira hamar film labur ikusteko aukera izango da emanaldi honetan. Film laburrak animaziozkoak dira eta herrialde ezberdinetan egindakoak. Antolatzaileek azaltzen dutenez, azpittuluak izango dira.

**'Encarna'**. 2003. Espainia. Gaztelaz eta plastilaz egindako panpinez osatua.

**'Calypso is like so'**. 2003. Frantzia. Stop motion modura egindako eta elkarriketarik gabekoa da.

**'Corten'**. 2002. Espainia. Gaztelan dago eta marrazki bizidunak papera gainean egina.

**'Les oiseaux en cage ne peuvent pas voler'**. 2000. Frantzia.

Plastilinarekin egindakoa eta elkarriketarik gabekoa.

**'How to cope with death'**. 2002. Britainia Handia. 2D formatuan egindakoa eta elkarriketarik gabekoa.

**'Gone fishin'**. 2002. Britainia Handia. 2D formatuan egina eta elkarriketarik gabe.

**'Panique au village. Le gateau'**. 2000. Belgika. Mistu formatuan eginda dago eta

frantsesa izango dira elkarriketarik gabekoa.

**'Ward 13'**. 2003. Australia. Mistu formatuan eginda eta elkarriketarik gabe.

**'Au bout du monde'**. 1999. Frantzia. Elkarriketarik gabeko marrazki bizidunak.

**'A szntjanosbogarak nemi ele-te'**. 2000. Hungaria. 3D formatuan egina eta elkarriketarik gabe.

## EGITARAUA ▶ OFIZIALA

## GAUR

Korpus eta Umeen Eguna.  
11:00. Meza nagusia.  
10:30-13:30. Ume eta gaztekoentzako parkea.  
11:30. Gorritiren zezenkoak eta ponyak plazan.  
16:00-18:00. Ume eta gaztekoentzako parkea.  
19:00. Loatzokoentzako kontzertua.  
22:30. Erromeria Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin.

## EGITARAUA ▶ FESTA ALTERNATIBOAK

## GAUR

Disfrax Eguna.  
16:00. Ume jolasak. Ondoren marrazki lehiaketa.  
17:00. Txokolatada.  
18:00. *Porrotx eta Kintxo jolasean* emanaldia. Gero, buruhandi eta txistulariak.  
20:00. Patata tortila lehiaketa.  
21:00. Saihets jatea. Afalostean, AHT-ren aurkako DVD-aren proiektzioa.  
23:30. Herriko Ezein musika taldearen kontzertua.

GUTUN@K ▶

Iraultza  
sozialistaren  
beharra

Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko eta bakea lortzeko, baita herritarren gehiengoa den langile klasearen arazoetara amaiera emateko ere, aintzakotzat hartzeko direlakoan, argitaratu ditugun azken eskutitzetako ondoko ideia iraultzaile eta marxista hauek nabarmendu nahi genituzke. Guretzat oso garrantzitsuak dira, oinarritzako baitira eta hauetan guztiz konbentziturata gaude.

Europako Itun Konstituzionalaren erreferenduma zela-eta genion: «Kapitalismoa desegiten ez dugun bitartean, amesgaiztoak segiko du. Kapitalismoaren logika baztertu eta Europa sozialista bat dugu alternatiba! Non langileak, herritarrak eta herriak, benetako protagonistak izango diren, eta hauen eskubideak lehenetsiko diren, kapitalisten interesen aurrean. Behar sozialak asetzeko, baliabide ekonomikoak langileen eta jendartearen eskuetan jarri behar dira, azken batean, denok bizitza eta lan duinak nahi ditugulako. Langileak, herritarrak eta herriak elkartuta, Europako herri libre eta sozialisten Batasunaren alde borrokatu dezagun». (...) «Bestelako Europa bat behar dugu eta posible da. Eta Euskal Herriak zapalkuntza eta gaitz guztietatik aske izan behar du. Dena eman duten belaunaldi borrokariari Euskal Herriaren askatasuna posible izango da, baldin eta Euskal Herriko, Estatuok eta mundu guztiko langileria eta gaztedia muga nazionalen gainetik elkartu, bosterea eskuetan hartu eta gizarte berri bat eraikitzen hasten bada, gizarte sozialista».

Irlandako prozesuaren inguruan jarduten genuenean: «Euskal Herriaren kasuan zehazki, prozesu irlandarra izan zen Lizarrako ituna iradoki zuena. Honen porrotetik urte batzuk igaro direla, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea lortzeko euskal burgesiarekin fronte bakar bat osatu behar dela esaten da tematurik oraindik, baina espainiar oligarkiarekin loturak dituen euskal eskuinak inoiz ez dituela herriaren nahi demokratikoak sutsuki defendatu eta hau zapaltzen dutenei ez dietela gogorregi aurre egin erakutsi du ordea esperientzia historikoak. Bere jokabideak, Alderdien Lege anti demokratikoa besterik eta erabili duelarik, oso garbi erakutsi du hau dena. Euskal Herriko autodeterminazio eskubidea lortzeko eta herri honetako gehiengo zapalduari (langileei, gazteei, langabetuei,...) eragiten dioten arazoekin amaitzeko bide bakarra errebindikazio demokratiko

guztiak, itzuligururik gabe, kapitalismoaren aurkako eta sozialismoaren aldeko borroka planteatzen dituen programa batean biltzea da». (...)

«Irlandako akordioa eskuetan dugula, inork ezin du onartu katolikoek, iparraldeko sei konderrietako sektorerik zapalduenak, kontzesiorik jaso dutenik gobernu britainiarraren aldetik. Aipatu akordioak uhartearen lurralde banaketa bedekintzen du. Hego Irlandak, zeinaren Konstituzioak 26 konderrien batasuna eskatzen duen (iparraldeko 6 konderriak barne), uko egin dio eskarari honi. Akordioak uharteko puntu guztietako ordezkariak biltzen dituen «Kontseilu» bat ezartzen du, botere eraginkorrik ez duena ordea. Autodeterminazio eskubideari dagokionez iparraldeko 6 konderrietara mugatzen da. Hau babes bilakatzen da protestante eta unionista sektariorientzat ordea, gehiengoa izanik ez baitute Irlanda batu bat onartzen, kapitalismo britainiarrarenpetik aske. Ipar Irlandako gobernu autonomikoan, Ostiral Santuko Akordioaren ondoren sortua berau, akordioaren alderdi sinatzaile guztiek hartzen dute parte, Sinn Feinetik hasita eskuindar unionistak arte. Praktikan ordea, zer ebatziko du akordioak masa langileentzat? Ez langabezia, ez desberdintasun sozialak, ezta bizi baldintzen gutxitzea ere ez dira desagertuko kapitalismoarenpean, mundu ekonomiaaren eboluzioaren menpe jarraituko baitu Irlandak. Ez da batasun irlandarra lortzen, ez «subiranotasuna» lortzen, ez sektarismo nahiz aginte britainiarrarekin amaitzen. Baldintza hauetan ez da egiazko bakerik lortuko».

Apirilaren 17ko Hauteskunde Autonomikoekin emaitzen balorazioan berriz azpimarratzen genuen: «Ez egonkortasun garai da. Irlandako bake negoziazioen antzeko bat ireki nahi bada ere, argi geratu da honen eraginkortasun eza. Euskal Herrian dugun arazoa kapitalismoaren barruan autodeterminazio eskubidea lor daitekeela pentsatzean dago. Beraien artean dituzten merkatu harremanengatik ez burgesia espainiarrari ez euskaldunari ez zaio interesatzen independentzia. Sozialismoaren aldeko borroka eskubide nazionalen aldeko borroka ere bada, eta, gure ustez, funtsezkoa da langile klasea garaipenera eramango lukeen zuzendaritza marxista eta iraultzaile bat sortzea. Kapitalismoarekin hautsiko duen iraultza batekin soilik amaituko dira burgesiak konpondu ezin dituen arazoak, eta hori izango da langile klasearen arazoekin eta arazo nazionalarekin amaitzeko bide bakarra».

MANU ODRIOZOLA ETA IBON  
ARTOLA ▶ ANOETA

ALEGIA ▶ KIROLA

Herri kirolak txikien artean sustatuz

Herri kirol probak antolatu zituzten atzo goizean San Joan eskolako umeentzat, I. Kirol Astearen egitarauaren barruan

NOELIA LATABURU

Alegiako I. Kirol Astearekin bat egin zuten San Joan Herri eskolako ikasleek, atzo goizean Eloreki kiroldegian antolatutako herri-kirolen probekin. Bi eta hamabi urte bitarteko gazteak aritu ziren jende proba, txingoa, zaku zama, sokatira eta kokkol apustuan.

Taldeak adinaren arabera banatu zituzten, lehenik eta behin 11 eta 12 urte artekoak, gazteagoak ondoren. 2 urteko haurtxoek helduenen laguntza izan zuten gainera, eta probak elkarrekin burutu zituzten. «Umeak gustura daude eta aldi berean euskal herri kirolekiko grina hartzen dute», adierazi zuten eskolako arduradunek. San Joan eskolako zuzendaria esanetan, halaber, «Udalak antolatutako ekimenekin bat egin nahi izan dugu proba hauek burutzera-koan».


Harmailak jendez gainezka zeuden, izan ere zenbait guraso hurbildu ziren kiroldegiraino, eguraldi onak bultzatuta, euren umetxoekin abileziak ikusteko. Arratsaldean, berriz, mahai-inguruaren txanda izan zen eta Gari Uranga, Iñaki Arratibel, Aitor Perez Arrieta eta Jose Manuel Erasun kirola eta osasunaren gaineko konbentzioak aritu ziren, Iñigo Asensioaren gidaritzapean.

I. Kirol Astearen ekitaldiak aurrera doaz, baina izango da oraindik ere zer gozatu Alegian datozen egunetan. Gaur Jose Manuel Oiarzabalek eta Igor Balerdik Everesteko trekina proiektzioa eskainiko dute, 19:30ean Kultur Etxean. Bihar, berriz, Aralar institutuko areto futboleko txapelketa jokatu dute ikasleek 16:00etan; 18:00etan I. Kirol Aste honetako pilota torneoak jokatu dute. Larunbat goizean gynkana antolatu dute herriko plaza gazteentzat, ondoren hamaitetako eskainiko zailarrik partaide guztiak. Igandean berriz mendi irteera antolatu dute, mendi asanbladaren laguntzarekin.

Oraindik balorazioekin has-teko goiz bada ere, orain arteko emaitzen balorazio «positiboak» egiten dute antolatzailerik.



Gaztekoen helduen laguntza izan zuten proba guztietan. N. LATABURU



## ALBIZTUR ▶

Ostatua hartzeko  
lehiaketarako  
izen-ematea

Herriko Ostatua hartzeko lehiaketa egingo da. Dagoeneko izena emateko epea irekita dago eta ekainaren 8a bitarte Albizturko udaletxean aukera izango da horretarako, non baldintza plegu bat hartu ahal izango den.

## IBARRA ▶

Ikastolaren  
Eguneko bazkari  
txartelak salgai

Uzturpe ikastolak ohiko den bezala Ikastolaren Eguna ospatuko du ekainaren 4an. Egun horretan egingo den bazkarirako txartelak salgai daude Uzturpe Ikastolan eta Zubiaurre tabernan, eta ekainaren 1a izango da eskuratzeke azken eguna.

## TXARAMA ▶

Herri jaietako  
afarian  
izen-ematea

Ekainaren 4an ospatuko dira Txaraman herri jaiak. Hainbat ekitaldi izango dira egunean zehar, eta gauean herri afaria egingo da. Urdaiazpikoa, bakailaoz beteriko pipe-rrak, arkume errea entsaladarekin, Jogurt *moussesa*, kafea, kopa eta purua izango da menua eta 20 euro ordainduko dira izen emateko. Horretarako 943 67 46 14 (Gardotza) zenbakira deitu beharko da.

## BELAUNTZA ▶

Eskalada  
ikastaroan  
izen-ematea

Belauntzako Udalak kirol eskalada ikastaroa antolatzeke asmoa du. Bertan eskalada mota desberdinak eta oinarritzko materiala zein den ikasteaz gain, entrenamenduak egingo dira herriko frontoian. 4 hilabete iraungo du ikastaroak, ekaina, uztaila, iraila eta urria hain zuzen, eta ordutegia izena ematen dutenen artean zehaztuko da. Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak Belauntzako Kultur Etxean izena eman beharko du, eta gaur izango du horretarako azken eguna.

## IBARRA ▶ KULTURA



Mari da Manuel Iglesiasen eskultura honen izenburua. I.TERRADILLOS



Tulipa lehorrak izena du Puerto Iglesiasen lan honek. I.TERRADILLOS



Bi kulturen artean izenekoa ikus daiteke pintura erakusketan. I.T.



Kixoteak ere bere lekua du eskultura erakusketan. I.TERRADILLOS

# Pintura eta eskultura erakusketa ikusgai

Puerto Iglesiasen pintura lanak eta Manuel Iglesiasen eskulturak ikusi ahal izango dira ekainaren 3a bitarte

## IÑIGO TERRADILLOS

Ekainaren 3a bitarte Puerto Iglesias eta Manuel Iglesias artisten pintura eta eskultura lanak daude ikusgai Ibarako Benito Izagirre kultur etxean.

Puerto Iglesias Plasencian (Caceres, Espainia) jaio zen 1943ko azaroaren 21n, eta bizilekua Maarheezen du, Holandan. Arte Ederretako ikasketak egin zituen Belgikan, eta ma-

rrazki eta pintura espezialitatean lizentziatu zen. Pintura-artearen munduan pertsona aktiboa da Puerto; Belgikan Kunstvereniging Kosmos-eko kidea da, eta Holandan Kunstkring Eyrnerick eta Kunstcollectief Perron I-eko kidea, azken horren sortzailea delarik. Puertok erakusketa-ibilbide itzela egingo du Europan zehar, banakako erakusketa nahiz kolektiboetan. Hainbat teknika

ezagutzen ditu, hala nola, urtinta, akuaforte, marrazki pas-tela, akuarela... Bere estiloa eguneroko objektuen abstrakzioarengatik eta konposizioaren eta kolorearen armoniagatik ezagutzen da.

Manuel Iglesias Izquierdo, berriz, 1950ean Plasencian jaio eta Beasainen bizi den eskultorea da. 1991. urtean egin zuen lehenengo erakusketa. Geroztik, bakarkako 16 era-

kusketa eta taldekako 9 egin ditu Euskal Herrian, Extremaduran, Kantabrian, Errioxan, Frantzia eta Holandan. Egun, Kubismoan eta abstrakzioan murgilduta dabil buru-belarri. Material ezberdinak erabiltzen baditu ere, batez ere corten altzairuarekin, altzairu herdoilgaitzarekin eta brontzearekin egingo du lan. Bere tamaina handiko eskulturen artean, Beasainen dagoen *Etorkizuna* edo Berriozarren dagoen *Mundo en paz* izenekoak aipa daitezke. Bestalde, egin dituen lanengatik Donibane Lohitzu-neko Artes Pays Basque Nord-Sud saria jaso zuen 1999an eta aukeratua izan zen 2003. urtean Gasteizen antolaturiko Itinerario Escultórico lehiaketan.

10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara izango dira ikusgai Iglesiasarren pintura eta eskultura lanak.

## LEITZA ▶ KULTURA

# Bost herritako ikasleen doinu emana, bihar

Herri musika gai hartuta, denera 519 ikasle, ari dira parte hartzen

JAIONE ASTIBIA

Bihar 17:30ean hasita, prestatuta duten egitarau mardula eskainiko dute Amazabal Institutuko 1., 3. eta 4. DBHko ikasleek, Amazabal pilotalekuan bertan.

Ez dira bakarrik ariko, ordea. Doneztebe, Altsasu, Bera eta Lekarozko ikastetxeetakoak ere lagun izanen dituzte, ikasturtearen tenore honetan, eta herri hauetan guztietan, ohiko

bilakatu diren kontzertu erraldoiotan: guztira 519 ikasle ari dira parte hartzen, proiektuan. Eta, noski, hauen musika irakasleak, sei, dira «orkestra erraldoi» horren zuzendari aritzen direnak. «Leku faltagatik», ez omen dira denak batera aritzen, baina hala ere musikari franko biltzen dira lanera. Eta mota guztietako tresnekin, noski. Beraz, entzuteko ez ezik, ikustekoa ere izanen da emandakoa.



lazio saioan, ekinean. J. A.

Aurten, herri musika hartu dute gai eta euskal doinuez gain, «Euritea» izenekoaren estreinaldia tartean dela, munduan zeharreko beste hainbat doinu mota ere joko dituzte, errepertorio anitza osatuz.

Hau guztia antolatzeko Amazabal ikastetxeko guraso elkartearen eta Leitzako Udaleren laguntza izan omen dute

## EGITARAUA ▶

'Buhamiak'. Herri musika.  
'Everybody needs somebody to love'. The Blues Brothers.  
'Desaparesido'. Manu Chao.  
'Koplak'. Imanol.  
'Imbube'. Soweto String Quartet.  
'Whiskey in the jar'. Irlandako herri musika.  
'Euritea'. Asier Jauregi.  
'Ilargia'. Ken Zazpi.  
'Otherside'. Red Hot Chili Peppers.  
'Keinuka ilargiari'. Oreaka Tx.  
'Video Killed the radio star'. The Buggles.

alde batetik eta, noski, ikastetxe bakoitzeko gainerako kideena ere bai, ziotenez, «aipamen berezia», DBHko 2. mailako ikasleentzat eginez, kontzertu hauen esku-egitarauak eta publikitateak ere beraiek egin omen dute eta.

Eskertzeko modurik hobereana, entzuterara joatea litzateke.

## LEITZA ▶

## 'Apartheid'-a salatuz bilkura egiteko deia hedatu dute

Bihar eginen dute, 20:00etan, plazan, atzo bi urte egindako hauteskundeak gogoan

J. ASTIBIA

Bihar iluntzean, 20:00etan, Herriaren nahia errespetatu. Apartheid-ik ez! lelopean elkarretaratzea eginen dute plazan, Ezker Abertzaleak deituta.

Oharrak dionez, «2003ko maiatzaren 25az geroz, bi urte igaro dira, udaletan herriak aukeraturako ordezkariarik ez dagoela», eta egoera hori salatzea omen dute helburu.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

## Beste bi lapurreta egin dituzte herriko dendetan, bertatik dirua eramanez

Aurreko aldiaren bost lekutan, eta oraingoa beste bitan sartu dira

J. ASTIBIA

Atzo goizean lanera joan zirenean, beren dendako atea indarrez irekita zegoela ohartu ziren, berriz ere, Leitzako bi dendari: Urkiola beheko harategiaz eta Gimeno botikaz ari gara.

Nonbait aurreko gauean lapurrak sartu ziren: sarrerako ateko sarraila hautsi, batean eskatu, eta sartu ziren, eta bi dendetan kutxa erregistratzaileak eraman zituzten, bertan zeuden sosekin. «Kanbioak, txanponak eta paperezko diru txikiak eraman dituzte», baieztatu

tatu zioten atzokoan Hitzari berari, bertako arduradunek eta hutsik zegoen beste kutxa bat ere bai «baina hutsik» omen zegoena, batetik. Bestela ez omen dute deus gehiagorik faltan bota: «Kajoiak eta irekita zeuden, baina ez dute deus ere eraman», zioten.

Farmaziako arduradunari SOS-Nafarroatik bertatik deitu omen zioten atzo goizean, «auzokoeak atea irekita ikusi zutenen, hara deitu baitzuten», adierazi zuen. Normalean, gainera, zaintza izaten duenean, bertan gelditzen omen da eta berdentzabart, «etxera joan

nintzen, hara», zioen, gerta zekiokenez harduraturata.

Harategian, berriz, lanera joan arte ez ziren ohartu. Baina, auzoko batek adierazi zuenez, etxe atarian atsedenean zeudela, gau-lehenean bi lagun ikusi omen zituzten auzoan zebiltzela eta soinuren bat ere entzun, entzun omen zieten, ondoren, herrian gora joaten ikusi zituztelarik. Inguruko autoei erreparaturata, eta ongi zeudela ikusita, beste deustaz ez omen ziren ohartu.

Goiza, atek konpontzen eta salaketak egiten igaro zuten, eguneroko lanari eutsiz.

## LEITZA ▶ UDALA

## Hirigintza eta hitzarmen transakzionalak nagusi

Bihar eginen dute ohiko batzarra Leitzako udaletxean, hamaika gai erabakitzeko

J. ASTIBIA

Bihar, hilabeteko azken ostiraldetan ohiko denez, batzarra eginen dute Leitzako udaletxean, 21:00etatik aurrera, batzar aretoan.

Batzarretako ohiko atalez gain, hamaika puntuko gai zerrenda izanen dute lantzeko. Hauetatik gehienak hirigintzarekin ikustekoa dutenak lirateke: Hirigintza Planaren «akats zuzenketa» bat, Plan horretako bereko AA2 unitateko aldaketa puntualaren «behin betiko onespena», 2.

poligonoko lursail baten «sailkapenaren hasierako aldaketa» eta 4.eko beste lurzati baten inguruko «akordioa» eta UR6 partzelari buruz, Aralar taldeak aurkeztutako «erabaki-proposamena». Haez gain, hainbat partikularrek irekita duten hitzarmen transakzionalak ere izanen dituzte esku artean.

Aipatu, Toki Administrazio-ko Departamenduak idazkari lanpostuaren merezimendu partikularren inguruan egindako errekerimenduaz ere ariko direla, besteak beste.

hitza **txokoa** *lagunen*

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAITE** Estetikako Zentru Integralak zozketatutako **BALLANCER** presoterapiarako 3 saioren irabazlea

**MIRIAM ARANBURU LIZASO (ALTZO)**



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** I. Kirol Astearren barruan Jose Manuel Oiarzabal eta Igor Balerdiren *Everesteko treking-a* proiektzioa. Kultur Etxean 19:30ean.

**Tolosa.** Emakumeen Munduko Marxa Donostiara iristen dela eta, auto karabana antolatu dute Bentaunditik 18:30ean Donostiaraino.

**Tolosa.** Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetako neska-mutilek bertso saioak egingo dituzte gaur eta bihar 18:30ean Leidor zineman.

**Tolosa.** Musikariaren barruan, Errenteriko orkestraren kontzertua Udala Musika Eskolan 19:30ean.

**Tolosa.** San Joan jaietan egingo diren batel estropadetan parte hartu nahi duten herriak, elkarteak, taldeak... izena ematera animatzen ditu Tolosaldeko Arraun Klubak Zerkauisoko instalazioetan iluntzetan, hilaren amaiera baino lehen.

**Villabona.** Txaman show 20:00etan Gaztehean, I. urteurrenko ekitaldien barruan.

**Zizurkil.** Haurrei eta gazteei zuzendutako film emanaldia Abulondo kultur etxean 18:00etan.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** Finantza eragiketak on-line nola egin. Tolosaldea LH Institutuan 18:00etan.

**Tolosa.** Babxilergoko 2. mailako gurasoentzako bilera Orixe institutuko liburutegian 19:00etan: babxilergoa bukatu ondorengo irteerak, eman beharreko pausoak, tramiak...

**Tolosa.** Natur jardunaldiak. Mahaingurua: *Bioaniztasunari eusteko estrategiak EAEn*. Udaletxean 20:00etan. Partaideak: Iñaki Aizpuru eta Mikel de Francisco. Aurkezlea: Miren Askasibar.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta 1. 943 67 38 49.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Jolasparke berriak

**ALKIZA-AMASA ▶** Udaberri eta uda honetan ederki aprobetxatuko dituzte bi herrietako haurrek jarri dizkieten jolaserako tramankuluak

**ERREDAKZIOA**

**U**daberria bere onenak ematen ari den honetan, udaren lehen printzak ikusten ari garen unean, oporretan pentsatzen hasten garen garaian, zabaldu dituzte beste bi haur parke berri Tolosaldean. Alkiza eta Amasan hain zuzen ere.

Traste eta tramankulu ugari jarri dituzte bi jolasparkeetan: txirristrak, kolunpioak, balantzinak, eskailerak, etxetoak... Berri-berriak eta modernoak. Alkizakoa plazaren ondoan dago kokatuta, duela gutxi Antonio Zubiaurre alkate zenaren omenez jarri duten eskulturaren ondoan. Amasakoa berriz, eliza eta plazatik gertu dago, itzal ederra ematen duten zuhaitzen ondoan.

Bi herri horietako txikienek badute non ibili eta jolastu hemendik aurreko aisialdi tertetan: orain eskolatik atera ondoren edo sartu aurretik, eta laster, oporrak hartzen dituztenean San Joan aurretik, goiz eta arratsaldez, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Eta haien ondoan, gurasoak, aitona-amonak, zaintzaileak... begira.



**Alkiza.** Elizaren ondoan, alkate zenaren omenezko eskulturaren ondoan jarri dute parke berria. IMANOL GARCIA



**Amasa.** Elizatik eta plazatik gertu, zuhaitz batzuen ondoan dago kokatuta jolasparkea. IMANOL GARCIA

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK AITATXO**  
Aitor Arbelegi (Tolosa).

Iker, Ibai eta amabixoren partetik muxu handi bat.



**URTE ASKOAN**

Iker Arbelegi. Atzo 4 urte. Zorionak aitona, osaba-izeba eta lehengusen partetik.

## HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tarteak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 beheka - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!